

ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2019ko maiatzaren 5ean egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



1. Sarrera	2
2. Udal Kudeaketa	3
Ordezkaritza bilerak	3
2018ko kontuen itxiera	4
2019ko aurrekontua	6
Turismoa	7
Webgune berria:	13
3. Batzordeen berri	19
3.1 Herri Bizitza	19
3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	28
3.3 Tokiko Garapena	33

1. Sarrera

- Ongietorria eta eskerrak eman ondoren bilerak bi atal izango dituela azaldu dugu: informazioa eman eta elkarrizketa. Bileraren Iraupena ordu eta erdikoa izango da, ohi moduan, eguerdiko 13:00etan amaitzeko.
- Agintaldiko hamaikagarren Herri Batzarra da, aurtengo lehenengoa.
- Bilera hau baliatuko dugu 2018ko azarotik gaur egunera arte, bost hilean landutakoaren berri emateko.
- Batzarraren amaieran 2015-2019 agintaldiko parte hartze sistemaren txostena banatuko dizuegu.

2. Udal Kudeaketa

2.1 Ordezkaritza bilerak

Azaro bukaeratik apirila bitartean udala ordezkatzuz egin ditugun bileren berri eman dugu. Lehenengo eskualde mailakoak:

ERAKUNDEA	BILERA KOPURUA	ORDEZKARIAK
Partzoneria	Batzordea	2 Aloña
	Junta	4 Aloña
Sasieta	Batzarra	1 Amaia
	Bilera	1 Amaia
Tobera Musika eskola	Junta	1 Arantza
Goi tentsioa: Altsasun Iruñan	1	Amaia
	1	Amaia eta Arantza
Goimen	Junta	3 Arantza
	Bilera	1 Arantza
GUZTIRA		15

Eta ondoren eskualdez kanpo egin ditugunak:

ERAKUNDEA	BILERA KOPURUA	ORDEZKARIAK
UEMA	Batzar Nagusia	1 Arantza
Kultura Saila Ondarea	Bilera	1 Amaia, Arantza
Ur Kontsorzioa	Batzar Nagusia	1 Amaia
GFA Saneamendua	Bilera	1 Aran eta Amaia
GFA Oreka	Bilera	1 Arantza, Amaia
GFA Parte hartzea	Herri txikien lantaldea	1 Arantza
GFA mendiak	Bilera	1 Amaia eta Arantza
GFA Berdinbidean	Herri txikiak	1 Udal talde osoa
GFA Errepideak	Bilera	1 Arantza, Amaia
GUZTIRA		9

2.2 2018ko kontuen itxiera

IRTEERAK

Orokorrean gastu guztiak jaitsi dira hirigintza atalean izan ezik, kontsulta asko izan ditugulako 2018 eta 2017 urteetan zehar. Honen ondorioz, partida hau handitu egin dugu 2019ko aurrekontuan.

Laguntzekin lotutako gastu aldakorren inguruan, frontoiko teiltuari dagokion diferentzia dago, hau aurreikusi gabe bazegoen ere, urgentziagatik egin behar izan zen. Horrez gain, beste batzuk ageri dira, 2018an eta 2019an zehar egitekoak eta martxan daudenak, baina oraindik fakturarik sortu ez dutenak.

IRTEERAK	2018ko BEHIN BETIKO ITXIERA		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIATZIOA
MAILEGUAK	8.600,00 €	10.749,56 €	-2.149,56 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	147.823,00 €	146.145,73 €	1.677,27 €
HIRIGINTZA	10.000,00 €	17.442,01 €	-7.442,01 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	16.038,50 €	1.461,50 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	15.200,00 €	15.447,63 €	-247,63 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.164,00 €	18.986,33 €	2.177,67 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	4.500,00 €	2.762,48 €	1.737,52 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	10.000,00 €	7.810,82 €	2.189,18 €
KULTURAREN SUSTAPENA ETA JAIK	13.150,00 €	12.816,42 €	333,58 €
EUSKERA	10.300,00 €	9.019,15 €	1.280,85 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	12.100,00 €	11.051,82 €	1.048,18 €
TURISMOA	31.200,00 €	29.044,30 €	2.155,70 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	34.800,00 €	29.348,08 €	5.451,92 €
GASTU FINKOAK	336.337,00 €	326.662,83 €	9.674,17 €
BASERRI BIDEAK	32.322,00 €	31.282,21 €	1.039,79 €
FRONTOIKO TEILLATU PROIEKTUA		6.279,00 €	-6.279,00 €
BIODIBERSITATEA	27.000,00 €	1.454,74 €	25.545,26 €
AUZOEN INBERTSIOAK	6.000,00 €	6.434,38 €	-434,38 €
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	33.684,00 €	33.752,95 €	-68,95 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	99.006,00 €	79.203,28 €	19.802,72 €
DENERA	435.343,00 €	405.866,11 €	29.476,89 €

SARRERAK

Sarrera finkoen inguruan, esan behar da espero baino altuagoak izan direla orokorrean. Hirigintzako proiektuek sarrera gehiago sortu dituzte obra zergetan.

Foru funtsa ere handiagoa izan da eta Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenak, Euskal Girotze Barnetegiak frontoia eta Mandio taberna erabiltzeko, ere sarrera gehigarriak ekarri ditu.

Sarrera aldagarrietan Eusko Jaurlaritzako laguntza bat jaso da Aizpitako labeen konponketetarako. Aipatu nahi dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eman ohi digun baserri bideen laguntzan, onartuta genituen 6.000 € gutxiago jaso ditugula herritar baten esku-hartze zuzenaren ondorioz.

SARRERAK	2018ko BEHIN BETIKO ITXIERA		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIAZIOA
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	70.750,00 €	68.322,05 €	- 2.427,95 €
OBRAKO ZERGAK	7.000,00 €	11.343,43 €	4.343,43 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	27.250,00 €	34.235,04 €	6.985,04 €
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	270.297,52 €	19.754,52 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	5.586,78 €	- 1.213,22 €
SARRERA FINKOAK	362.343,00 €	389.784,82 €	27.441,82 €
E.J.: MINATAKO DIRULAGUNTZA		25.867,33 €	25.867,33 €
E.J.: EUSKERA		2.500,00 €	2.500,00 €
GFA: EUSKERA			- €
E.J.: BIODIBERSITATAEA	22.000,00 €	10.782,50 €	- 11.217,50 €
GFA: PARTEHARTZEA			- €
GFA: BASERRI BIDEAK	27.000,00 €	16.850,28 €	- 10.149,72 €
E.J.: ETXEBIZITZAK	24.000,00 €	24.000,00 €	- €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	73.000,00 €	80.000,11 €	7.000,11 €
DENERA	435.343,00 €	469.784,93 €	34.441,93 €

Orokorrean, 2018a soberakin positibo batekin bukatu dugu, eta beraz, 2017az geroztik Foru Aldundiarekin genuen *Plan Ekonomiko Finantzarioa* amaitu dugu eta udaleko kontuak normaltasunean daude.

2.3 2019ko aurrekontua

IRTEERAK

Gastu finkoen inguruan, partidak aurreko urteko jaitsierara gerturatu ditugu hirigintzako ezik, aurretik esan bezala 2018ko eskaeraren ondorioz handitu egin delako. Laguntzetara lotutako gastu aldagarrien inguruan Zabalegi eta Errementariko proiektuetan arkitektoak legegintzaldian egindako lanak fakturatuko ditu. Zabalegin hainbat inbertsio egin dira jabe pribatuen arteko hitzarmenaren zain dagoen proiektuan. Partida handiena etxebizitzaren proiektuari lotuta dago.

IRTEERAK	AURREKONTUA 2019	
	2018	2019
MAILEGUAK	8.600,00 €	11.621,00 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	147.823,00 €	155.273,00 €
HIRIGINTZA	10.000,00 €	20.000,00 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	15.333,17 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	15.200,00 €	14.000,00 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.164,00 €	20.321,00 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	4.500,00 €	4.450,00 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	9.750,00 €	7.850,00 €
KULTURAREN SUSTAPENA ETA JAIK	13.150,00 €	16.600,00 €
EUSKERA	10.300,00 €	5.250,00 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	12.100,00 €	14.450,00 €
TURISMOA	31.200,00 €	53.404,00 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	34.800,00 €	37.200,00 €
GASTU FINKOAK	336.087,00 €	375.752,17 €
BASERRI BIDEAK	32.322,00 €	29.436,00 €
ZABALEGI + ERREMENTARI PROIEKTUAK		30.700,00 €
AIZPITAKO LABEAK		40.000,00 €
BIODIBERSITATEA	27.000,00 €	27.467,00 €
AUZOEN INBERTSIOAK	6.000,00 €	4.000,00 €
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	33.684,00 €	345.000,00 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	99.006,00 €	476.603,00 €
DENERA	435.093,00 €	852.355,17 €

SARRERAK

Ia ez dago aldaketarik sarrera finkoen atalean, foru funtsa da aldatzen dena dagokion urteko igoerarekin. Sarrera aldakorren inguruan, asko igotzen dela ikus dezakegu ditugun bi proiektu handien ondorioz: etxebizitzak eta Aizpitako labeen berrikuntza.

SARRERAK	AURREKONTUA 2019	
	2018	2019
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	70.750,00 €	68.750,00 €
OBRAKO ZERGAK	7.000,00 €	3.500,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	27.250,00 €	26.150,00 €
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	267.284,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	5.950,00 €
SARRERA FINKOAK	362.343,00 €	371.634,00 €
E.J.: MINATAKO DIRULAGUNTZA		51.734,67 €
E.J.: ETXEBIZITZA SAILA	24.000,00 €	320.000,00 €
E.J.: IHOBE		25.000,00 €
E.J.: BIODIBERSITATAEA	22.000,00 €	10.782,50 €
GFA: BASERRI BIDEAK	27.000,00 €	20.605,00 €
BASERRI BIDEAK HERRITARREN APORTAZIOA		4.415,50 €
E.J.: MUSEOAK		2.934,00 €
BESTE LAGUNTZA BATZUK		45.250,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	73.000,00 €	480.721,67 €
DENERA	435.343,00 €	852.355,67 €

2.4 Turismoa

Herri programan jasota dago turismoak gure herrian duen garrantzia dela eta, hausnarketa egin behar dela turismoa indartzeko eta iraunkorra izan dadin lortzeko. Fundazioaren zuzendaritza hartu dugunean argi ikusi dugu beharrezkoa dela turismoa birdefinitzea, beste kudeaketa bat egitea, egiazko informazioa jasotzea eta turismoak herriaren beharretara erantzutea. Aipatutako kezka horiek herritar askok ere badituztela ikusita, prozesua martxan jarri genuen.

Egindakoak:

- **1. Urratsa: aurrelanak (azaroa baino lehen)**
- **2. Urratsa: diagnostikoa eta aurrera begirakoak (apirila baino lehen)**
 - 2 saio monografiko 3 batzordeetako kideekin eta bestelako herritarrekin.
 - Herritarren ekarpenak jaso.
- **3. Urratsa: proposamena osatu**
 - Beste esperientziak ezagutzeko BANKAra (Behe Nafarroa) bisita.

- Txostena bukatu, aholkulari eta herritarren ekarpenak barneratuz.

2019ko martxoaren 31ean Aldabe kooperatibaren kontratua amaitu zen. Kontratu hori duela 8 urte egin zen, eta 2015eko martxoan, beste lau urtez luzatu zen, oraingo Udal taldea udalean sartu baino hiru hilabete lehenago. Kontratua egiteko modua ez zen egokia izan eta hurrengo kontratua egiteko lehiaketa publiko bat egin beharko da.

Hiru arrazoiengatik erabaki genuen kontratua luzatzea:

- Turismoarentzat udaberri eta udako sasoiak dira emankorrenak eta ondorioz kontratua berritzeko ez da garairik egokiena.
- Turismoaren hausnarketan ari ginela oraindik data horretan.
- Aurten Udal Hauteskundeak daudenez egokiagoa dela ondorenean erabakitzea gai honen inguruan.

Urtarrilaren 21ean 6 hilabetez kontratua luzatzea proposatu genion Aldaberi hitzez astero beraiekin izaten dugun bileran, betiere AURRETIK ZEUDEN BALDINTZA BERDINETAN.

Martxoaren 21ean kontratuaren amaierako data gainean genuela ikusirik, luzapen kontratua idatziz eman nahi izan genien, baina ez ziguten hartu nahi izan. Hori dela eta, burofaxez bidali genien kontratua. Aldabek momentu horretan Fundazioari baldintzak aldatzeko eskatu zion, zehazki beraiek ezer ez ordaintzea. Fundazioak ezin izan du hori onartu ditugun datu ekonomikoak ikusita.

Azkenik, Aldabek kontratua sinatu du Fundazioak proposatutako baldintzetan. 2019ko urriak 31ean bukatuko da kontratu hau.

Turismo prozesuko hausnarketa bukatutakoan erabakiko du Udalak nola bideratuko dituen azarotik aurrera turismo zerbitzuak.

Turismo zerbitzuak kudeatzegatik Udalak/Fundazioak egin duen inbertsioa honakoa izan da:

Udalak Zerain Dezagun Fundazioari ematen dio eta honek ALDABE, Koop Elkarteari.

- Turismo Bulegorako: 9.100,00 €
- Zerain Paisaia Kulturala kudeatzeko: 14.400,00 €

GUZTIRA: 23.500 € URTEKO
2015-2019 agintaldian: 94.000 €

ALDABE, Koop Elkartek azpiegitura guztiak erabiltzeagatik ordaintzen duena:

GUZTIRA: 5.991,48 € URTEKO
2015-2019 agintaldian: 23.965,92 €

Inbertsio horiez gain Udalak turismoarekin lotura duen beste inbertsio eta lan horiek egin ditu:

AIZPITA

- Argien instalakuntza elektrikoan **6.080,25 €**. Baloratu da **ea 2.958,29 € ko** (+ BEZ-a) konponketak merezi duen eta erabaki da labeen eraberritze proiektuarekin batera sistema guztia berrituko dela.
- Mantenimenduaren eta segurtasunaren inguruan: galerian eskatutako konponketak egin dira eta labeen goialdeko pasadizoen sarrerak itxi ziren segurtasuna bermatzeko.
- Informatikako instalazio, programazio eta sistema elektrikoak bi aldiz konpondu dira **4.573,80 €** kostuarekin.
- Ibilbideak mantendu, belarra, arbolak eta abar moztu, segurtasuna bermatzeko itxiturak konpondu eta mota horietako lanak etengabe egin dira.
- Kartelak eta seinale berriak jarri dira ibilbidean.
- Euriaren ondorioz sortu diren hainbat luizi konpondu da eta picnic area bat sortu da.

- Gainera, sagu zaharrentzako babestutako gunea sortu da eta horren segimendua bermatu da.

Guztira: **29.000 €**

Hobetu beharrekoak:

- Aizpita zentroko argiteria eta berotzeko sistemak. Biak gaizki diseinatuta daude eta ondorioz goiko pisuan bitrinetan dauden piezak ez dira ikusten eta hotz handia egiten du.
- Zentroko garbitasuna erabat eskasa da, zikina dago, hautsez beteta.

ATERPEA

- 2016an Logeletako 40 armairutxoak aldatu dira **2.597,87 €** ko kostuarekin.
- Eraikina kanpotik pintatu da.
- Galdara berria ipini da, aurretik aterpetxean eta sukaldean zeuden eta 20 urte baino gehiago zituzten bi galdarak ordezkatzuz **9.563 €**ko kostuarekin.
- Herriko herri langileek aterpetxean konponketak eta mantenimendua egin dute hala eskatu den guztietan.

Hobetu beharrekoak:

- Aterpetxearen garbitasuna, bazkariaren kalitate eskasa eta jasotako tratua.

LARRAONDO ZERRATEGIA

- Teila zaharren aldaketa, habeen aldaketa eta zerrategiko putzuaren garbiketa jarraitua, eskatu den momentuan, nahiz herri langileek beharrezkoa ikusi dutenean.

Azken 4 urte hauetan eskaintza turistikoa hobetzeko egindako beste hainbat ekintza ere bildu nahi izan ditugu, zuzenean, nahiz zeharka, herriko turismoan eragiten dutelako:

OSTATUA

- Sukaldeko altzariak eta inox frontala **2.387,18 €**
- Arrain kamara **1.039,09 €**
- Ardo kamara **963,40 €**
- Telebista **550,50 €**
- Izotz Makina **1.535,25 €**
- Sukaldeko erregailuak **1.496,77 €**
- Kamara handiko motorra **4.317,28 €**

KARTZELAN:

- Barruko lanak, zorua eta abar.
- Kanpoko argazkiak **742,94 €**

MANDIO TABERNA

- Kamara handia **1.174,08 €**
- Kamara txikia **1.080,65 €**
- Erauzgailuaren motorra **942,26 €**
- Galdara **806,00 €**
- Telebista **389 €**
- Ontzi garbigailua **1.795,94 €**
- Herri langileen lana sukaldea garbitzen ALDABE-k kudeaketa utzi eta gero.

BESTERIK

- Autokarabana gunea egiteko proiektu bat erredaktatu da **1.452,00 €** ko kostuarekin.
- Webgune berria martxan jarri da, aurreko webgunea eguneratu gabe eta zaharkituta zegoelako. Gogoratu nahi dugu ALDABEk sinatuta duen kontratuan webgunea eguneratuta mantentzea ere bere erantzukizuna dela. Berritzeak **4.688,75 €ko** kostua izan du.

- ZERAINTZEN, S.A.-ko 2015 eta 2016 urteetan **124.000 €**ko gastua zituen bi langileetan (62.000€ urteko). Honez gain, langile teknikoaren indemnizazioan, 2017an **41.970 €**.
- Bi herri langileek turismoan sartzen dituzten orduen kostua (2015-2018) ere kontuan izan behar da. Beraien lan kargatik %20a turismora bideratuta dago, eta beraz, 4 urteetan denera **47.989,60 €** inbertitu ditu udalak (11.997,40 €/urtea).
- Espainiako Fomentuko Ministeriotik Aizpeako labeak berritzeko diru laguntza jasotzea **725.000-€** balio duen proiektuaren %75 finantziatzeko. 542.688 €
- Zerainen turismoaren egoera aztertze eta egokitzeko parte-hartze prozesu bat martxan jarri, epe motz-ertainera plan estrategiko bat idazteko.
- Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin Zeraingo aterpetxean Euskal Girotze barnetegia behin behinean egoteko.

2018ko abendutik 2019ko apirilera arte, normalean aterpetxea ia hutsik egoten den denboraldian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Zeraingo Udalaren arteko hitzarmen baten bitartez aterpetxea beteta egon da Euskal Girotze Barnetegia bertan egon delako. Honek ALDABERI sarrera bereziak ekarri dizkio (Hezkuntza Sailatik lortutako datuak):

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIKO TALDE BAKOITZEKO KONTUAK

Talde tamaina: 22 pertsona.

- Auzolagunek asteko kobratzen duena (janaria eta soldata barne): **1.406,83 €**
- Berogailua, argia eta ura asteko: **120,00 €** ggb.
- ALDABEk ezarri duen kuota: kudeaketa lanak-garbiketak (%25): **381,71 €**

<u>GASTUAK</u>	<u>1.526,83 €</u>
<u>SARRERAK (aurrekontuaren arabera)</u>	<u>2.348,50 €</u>

IRABAZIA ASTERO	821,67 €
IRABAZIA DENBORALDIAN (15 TALDE X 821,67 €)	12.325,05 €

Jarraian aurretik aipatutako inbertsio guztien laburpena ageri da:

AIZPITA	42.612,34 €
ATERPEA	12.160,87 €
OSTATUA	12.289,47 €
KARTZELA	742,94 €
MANDIO	6.187,93 €
ZERAINTZEN	165.970 €
UDAL LANGILEAK	47.989,60 €
LABEETAKO PROIEKTUA*	725.000 €
BESTERIK (WEBGUNEAK, AUTOKARABANA GUNEA...)	6.140,75 €
GUZTIRA	1.019.093,9 €

* Aurten eta hurrengo urtean inbertituko da.

Ikusten denez urtero milaka euro inbertitzen dira turismoan, herriak esfortzu handia egiten du turismoa babesteko eta bultzatzeko. Turismoaren hausnarketaren bidez turismoaren proiektua birdefinitzea espero dugu. Gaur egungo testuinguruan proiektu iraunkorra eta bideragarria izateko.

Turismoa egoki kudeatzea izango da erronka, errutinatik atera eta herriak alor hau garatzeko egiten duen esfortzu handiari zuku guztia aterako diona. Turismoari eskainiko zaizkion baliabideak nola orekatu herriak dituen beste inbertsio beharrek inbertsio beharrek erabaki beharko da.

2.5 Webgune berria:

Udalak herriko webgunea berritu du eta diru laguntza bat izan du horretarako. Alde batetik herritarren parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzeko aproposagoa izateko eta bestetik kanpora begira Zeraingo irudia eguneratzeko egin da berritze hau. Webgunearen bitartez hainbat tramite online egiteko aukera dago eta jarraian laburpen bat ageri da.

Webgunearen sarrera bi zatitan banatu da: bisitarientzat herriko zerbitzuak agertuko dira eta bertakoentzat tramiteak eta beste hainbat gai garrantzitsu, agendarekin batera.



Zerbitzuen atalean, herriko mapa interaktibo bat ageri da bertako zerbitzu guztiak kokatzeko: sagardotegiak, tabernak, nekazal etxeak... Ondoren, bakoitzaren gainean klik eginez gero, informazio gehiago eskaintzen da zerbitzuaren inguruan (ordutegia, nola iritsi...)



[GUZTIAK](#)
[EROSKETAK](#)
[HEZKUNTZA](#)
[NON SAN](#)
[NON LO EGIN](#)
[OSASUNA ETA KIROLA](#)
[TURISMOA](#)
[UDAL ZERBITZUAK](#)

Webgunetik Xaguarteak eta urtekariak deskargatzeko aukera daukagu “Zerain ezagutu” ataletik.



Tramiteen atalean ondorengo aukerak aurkituko ditugu oraingoz:

- Eskaera orokorra: beste tramiteetatik kanpo geratzen den edozein eskaera orokor.
- Hirigintza kontsulta eskaera: udal arkitektoarekin kontsulta bat izateko eskaera.
- Obra baimen eskaera: etxean obra bat egiteko eskatu beharrekoa.
- Errolda: errolda agiria eskatzeko formularioa.
- Udalaren material eskaera: udalak duen materiala (mahaiak, aulkiak, musika ekipoa, parrilla...) eskatzeko formularioa.
- Udalaren lokal eskaera: udalaren lokalak (frontoia, Kultur Etxea, Maixune...) erabiltzeko eskaera egiteko formularioa.
- Zerbitzu telematikoak: modu digitalean hainbat tramite egin daitezke IZFE-ren zerbitzuak erabiliz (ziurtagiri digitala behar da). Esaterako errolda online, multak, tasak, erregistroak, espedienteak...

**BESTELAKO
ESKAERAK**

Eskaera orokorra
Hirigintza kontsulta eskaera
Obra baimen eskaera
Udaleko lokal erabiltzeko eskaera
Udaleko material erabiltzeko eskaera
Errolda
Zerbitzu telematikoak

Izen-abizenak

Emaila*

Telefonoa

Zein lokal erabili nahiko zenuke? (egin klik lokalaren gainean)

Kulturetxea, diorama gela

Bestelako lokal erabili nahiko zenuke? Adierazi zein

Zein egunetan erabili nahiko zenuke?

00/mm/aaaa

Zein ordutan erabili nahiko zenuke? (adierazi idatziz: Adib.: "17:00-19:00")

Zein ekintza egingo da lokalean?

Parte hartzearen atalean batzordeen inguruko informazioa jaso da, baita legegintzaldi honetako herri batzarretako txostenak deskargatzeko aukera ere.



Herri batzarrek

Herri batzarretan **udal kudeaketaren inguruko informazioa ematen da** eta batzordeek denboraldi horretan egingako ekintzak eta proiektuak azaltzen dituzte. Urtean hiru-palau, herri batzar egiten dira. Normalean informazio deskargoa 45 minutukoa izaten da, eta beste 45 minutu zehatzak eta galderak argitzeko erabili ohi dira. Ondoren, udalak eta batzordeak emandako **informazioa etxe guztietara bidaltzen da** txosten baten bitartez.

[Herri batzarren txostenak ikusi eta deskargatu](#)

- [Herri Batzarra \(2018-11-25\)](#)
- [Herri Batzarra \(2018-01-28\)](#)
- [Herri Batzarra \(2017-11-05\)](#)
- [Herri Batzarra \(2017-04-30\)](#)
- [Herri Batzarra \(2016-11-26\)](#)
- [Herri Batzarra \(2018-06-24\)](#)
- [Herri Batzarra \(2018-06-24\)](#)

Gardentasunaren atalean udaleko kontratazio publikoak egiteko plataforma dago eta legegintzaldi honetako aurrekontu eta itxiera guztiak aurki ditzakegu deskargatzeko moduan.

[HASIERA](#)
[ZERAIN EZAGUTU](#)
[UDALA](#)
[TRAMITEAK ONLINE](#)
[PARTE HARTZEA](#)
[GARDENTASUNA](#)
[AKTUALITA](#)

LIKIDAZIOAK

- [2018 Provisonalak](#)
- [2017 Onarpen dekretua](#)
- [2017eko Likidazioa](#)
- [2016 Onarpen dekretua](#)
- [2016eko Likidazioa](#)
- [2015eko Likidazioa](#)
- [2015 Onarpen dekretua](#)

AURREKONTUAK

- [Aurrekontua 2019](#)
- [Aurrekontua 2018](#)
- [Aurrekontua 2017](#)
- [Aurrekontua 2016](#)
- [Aurrekontua 2015](#)

Azkenik, aipatu webgunearen lehen bertsioa izanik, oraindik euskaraz bakarrik dagoela (itzulpen lanetan ari gara) eta hainbat hobekuntza behar dituela oraindik. Edozein ekarpen edo hobekuntza ikusiz gero, deitu/idatzi lasai udalera horien berri emateko. Sartu eta saltseatu datozen egunetan!

3. Batzordeen berri

3.1 Herri Bizitza

Herri bizitza batzordeak-Oa kultur elkarteak 2018ko urte amaieran eta 2019 urte hasieran egin dituen eta egingo dituen ekintzen berri emango dizue.


ABENDUAK 3 “EUSKERAREN EGUNA”

Abenduaren 3an, arratsaldeko 6etan Zeraingo Kultur Etxean Aralar dokumentalaren emanaldia izan genuen eta bertan parte hartu zuten zuzendaritza taldeko bi kideak, dokumentalaren nondik norakoak kontatzeko. Ondoren dokumentalaren DVDak eskatzeko aukera ere egon zen. Dokumentalari 300 euroko laguntza eman genion.



2018KO GABONAK

Goizeko 8.45ean autobus geltokian elkartu, eguerdian ordu beteko deskantsua egin bazkaltzeko eta arratsaldeko 6ak aldera arte herriko auzo, baserri eta etxe guztiak kantuz girotu ziren. Herritarrei eskerrak eman, eman duten laguntzagatik eta bildutako dirua (2.965,10 €) hiru talderentzako izan da: Caritas, Etxerat eta OA elkaratearentzat. Iluntzean Olentzero etorri zitzaigun gaztaina eta gozokiak denei eskaintzera, herriko haur eta Uharka abesbatzak eskainitako emanaldiarekin batera.




2018ko GABONAK	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
OLENTZEOREN ASTOA	0,00 €		
HAURRENTZAKO GOXOKIAK	35,00 €		
BAZKARIKO GASTUAK	101,90 €		
GAZTINAK	44,95 €		
CARITAS ELKARTEA/ETXERAT ELKARTEA	1.950,00 €		
KANTU ESKEA		2.965,10 €	
	2.131,85 €	2.965,10 €	833,25 €

2018KO URTEKARIA

2018ko urtekaria, 31. urtekaria izan dugu eta gai nagusi bezala Zerainen lan egiten duten emakumeak izan dira elkarrizketatuak. Horretaz gain, urtean zehar herrian izan diren ekintza ezberdinak aipatu dira, kolaborazio ezberdinak, haurren marrazki eta idatziak...

Urtekariaren ale bana herriko etxe guztietara banatu da eta salgai jarri da Mandio dendan eta Ostatu tabernan. Guztiei eskerrak eman nahiko genizkieke.



2019KO MARTXOAREN 6AN, OAKO URTEKO BATZARRA

Martxoaren 6 an arratsaldeko 18.30 ean Kultur Etxean izan zen OAKo urteko batzarra; bertan 2018 urteko ekintzen balorazioa eta emaitza ekonomikoak landu ziren eta 2019 urteko plangintza landu zen. Ekintzen balorazio ona egin zen orokorrean.

Taulan ikusten den bezala, 2018an, urtean zeharreko ekintza ezberdinetan eta festetan izan diren diru sarrera eta irteerak ikus ditzakegu.

IRTEERA OSOA 2018koa_____					19.650,06 €
SARRERA OSOA 2018koa_____					21.112,24 €
IRTEERA	ETA	SARREREN	ARTEKO	ALDEA	
1.462,18€					

2018ko KULTUR EKINTZEN IRTEERA ETA SARRERAK	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
2018ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA	250,00 €	- €	-250,00 €
2018ko UDABERRIKO KULTUR ASTEA	1.534,90 €	251,00 €	-1.283,90 €
2018ko AZALAREN LEIHAKETA(Urtekaria eta festako programa)	113,00 €	- €	-113,00 €
2018ko SAN JUAN BEZPERA	400,49 €	- €	-400,49 €
2018ko MUTILOARA JETSIERA	- €	- €	- €
2018ko HERRIKO FESTAK			
ABUZTUAK 14, asteartea	3.966,74 €	3.040,50 €	-926,24 €
ABUZTUAK 15, asteazkena	3.200,23 €	216,00 €	-2.984,23 €
ABUZTUAK 16, osteguna	1.222,93 €	- €	-1.222,93 €
GASTU OROKORRAK*	5.313,78 €	3.604,64 €	-1.709,14 €
	13.703,68 €	6.861,14 €	-6.842,54 €
*OHARRA: EZ DA KONTUAN HARTU MANDIO, OSTATU, LUMAGORRI, OTATZA ETA OHIARTEKO APORTAZIOA EZ DELAKO DIRUTAN EMATEN.			
2018ko EUSKERAREN EGUNA	300,00 €	- €	-300,00 €
2018ko GABONAK	2.131,85 €	2.965,10 €	833,25 €
2018ko BESTELAKO KONTUAK			
Berriako harpidetza 2018	433,00 €		
Argiako harpidetza 2018	300,00 €		
Hitza eta Goiberriko harpidetza 2018	92,00 €		
Eluyar harpidetza 2018	16,00 €		
Honduras hitzadiko afaria 2018KO URRIA	68,60 €		
2018 Kutxa kontuaren mantenimendua	36,00 €		
Bolariak (Bolo txikia Luis Aizpeolea taloia 2018 maiatza)	210,54 €		
Bolariak (Saria dirutan Gabirin Jabier Aizpeolea taloia 2018 apirila)	60,00 €		
2018ko Urtekariko dirulaguntzak 2019an erabiltzeko (200€ falta dira)		1.035,00 €	
Udal dirulaguntza festak 2018		7.000,00 €	
Udal dirulaguntza kultur ekintzak 2018		3.000,00 €	
	1.216,14 €	11.035,00 €	9.818,86 €
2018 DENERA	19.650,06 €	21.112,24 €	1.462,18 €

2019KO MARTXOAREN 7 eta 8AN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoan 8ari dagokionez, berezia izan zen, mobilizazio izugarriak izan dira. Zerainen ere aurremantalak zintzilikatu ziren balkoietatik eta udaleko atean, eta bi elkarretaratzea izan ziren plazan. Ondoren eskualde mailako manifara joan ginen.

Bezperan, Kultur Etxean “Festa dezagun gaurdanik geroa” dokumentala ikusi ahal izan zen eta ondoren tertulia eta mokadutxoa izan ziren. (Ostatua itxita zegoen oporreatatik eta afaririk ez zen egin).



2019ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
AFARI MERIENDAKO JAKIAK	108,59 €		
	108,59 €	0,00 €	-108,59 €

2019KO MARTXOAK 15ETIK 18RA CISTELLARA

2018ko irailean izan genituen Cistellako herritarrak Zerainen asteburu pasa eta orain Zeraindarroki tokatu zaigu bertara joatea; herria ezagutu, ohiturak ezagutu...40 lagun inguru joan ginen furgoneta eta autokarabanetan. Harrera oso ona egin ziguten eta hurrena berriz beraiek Zeraina bueltatzekotan geratu ziren.



CISTELLARA BIDAIA	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
GARRAIOA	826,28 €		
HERRITARRENTZAT OPARIAK	695,25 €		
	1521,53 €	0,00 €	-1521,53 €

2019KO APIRILAK 13AN KORRIKA

Korrikako antolakuntzarako batzorde bat osatu zen, lau bilera egin ditu talde honek eta lehen bilera urtarrilaren 30ean izan zen eta gero besteak jarraian. Batzorde honetan herriko talde ezberdinetako jendeak parte hartu du eta 5 KM erosi ditugu Zeraindarrok.


Korrikaren inguruan, martxoaren 21ean Tobera Musika Eskola eta Uharka abesbatzaren emanaldia izan genuen plazan. Ondoren merienda eta material salmenta postua jarri zen herriko plazan. Ondoren Korrika bezperan, apirilaren 12 iluntzean Ostatuko plazan mosaikoa egin genuen Klika hitza osatuz eta apirilaren 13 goizean korrika egiteko elkartu ginen soziedadean, taldeko argazkia atera eta korrika egiteko bakoitza bere tokira joan ginen, Zeraingo zatia 14 zati

ezberdinetan banatu genuen, jende ezberdinak testigua eramateko aukera emanez. Korrika egin ondoren txokolate jana soziedadean.



2019KO UDABERRIKO KULTURALDIA

Aurreko urteetan bezala, aurten ere maiatzean udaberriko Kulturaldia antolatu da Herri Bizitza batzordetik.



Jarraian egitaraua aurkezten da:

2019ko ZERAINGO UDABERRIKO

KULTURALDIA

- **Maiatzak 4**, larunbata, 16:00etan. **IV. SEGURA-ZERAIN MENDI LASTERKETA, SANSON PROBA.**

Segura eta Zeraingo mendi ibilbideetan barna, mendi lasterketa.

- **Maiatzak 8**, asteazkena, 20:00etan Kultur etxean:

Tolosako Tik-Tak antzerki taldearen eskutik, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko "Evaren alabak" antzezlan.

- **Maiatzak 9**, osteguna, 19:00etan Kultur etxean:

Maitane Salsamendi, Zerainadar ikerlariaren hitzaldia "Gaurko ikerkuntza biharko gizartea eraikitzeko".

- **Maiatzak 12**, igandea, **SAN IXIDRO BAZKARIA.**

14:00etan Herri bazkaria elizatarian. Mendarteko mahastiko zotzak sutarako erabiliz, herriko artzainen arkume eta Lumagorriko hegalean jana. Haurrentzako eta jateko ohitura ezberdina dutenentzako menu ezberdina egongo da aukeran (Tikeak 12 eurotan salgai Ostatu tabernan maiatzaren 10era arte. 12 urtetik beherako haurrak dohainik).

- **Maiatzak 15** asteazkena, 19:00etan Kultur etxean:

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko Amaia Elizondo eta Alicia Figueroaren eskutik, "Kirol egokituaren antolaketa Gipuzkoan" hitzaldia.

- **Maiatzak 17**, ostirala: 16:30etatik aurrera **HAURREN MARRAZKI RALLYA** plazan edo frontoian.

19:00etan **X. PATATA TORTILA LEHIAKETA**. AURTENGOA BEREZIA IZANGO DA 10 URTE OSPATZEN DITUGULAKO, BERAZ SORPRESA ETA GUZTI! Ondoren, afari merienda eta **HERRIKO TRIKITIXA IKASLEEN KONTZERTUA** pilotalekuan bertan. (Parte hartzeko, gutxienez 2ko eta gehienez 4ko taldeek izena eman beharko dute Ostatu tabernan edo Udalean maiatzaren 15erako. Sua eta lehengaiak antolakuntzak jarriko ditu).

Oharrak:

- Hitzaldiek ordu bete inguru iraungo dute.
- Kirol egokituaren inguruko hitzaldiaren harira, maiatzaren 14tik ekainaren 3ra kirol egokituaren inguruko erakusketa bat egongo da Kultur Etxean.



Herri bizitza batzordea

2019KO FESTEN EGITARAU ETA URTEKARIAREN AZALAREN LEHIAKETA

IV. lehiaketa izango dugu aurten eta maiatzean egingo da deialdia. Urtero bezala bi taldetan banatuko dira lanak:

- 2007tik aurrera jaiotakoek festen azala egiten parte hartzeko aukera izango dute.
- 2006ra arte jaiotakoek urtekariko azala egiten parte hartu ahal izango dute.

Aukeraketa San Juan bezperako festan egingo da, plazan.

2019KO UZTAILAREN 15EAN EUSKARABENTURAKOEN BISITA.

Iazko uztailean ere Zerainen egin zuten etapa baten amaiera Euskarabenturako gazteek eta antolakuntzakoek, aurten ere etapa bat, uztailaren 15ean hain zuzen, Zerainen bukatzea aurreikusi dutela aipatu digute, iaz izan zuten esperientzi ederra errepikatu asmoz.

Guzti hauek eta beste gai batzuk lantzeko Herri bizitza batzordea hilean behin elkartzen da, hilabeteko lehen asteazkenetan, 18.00etatik 19.30era udaletxean eta edozeinek parte har dezake batzordean, hurrengo bilera ekainak 5ean izango da.

3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Hilean behin izaten da bilera, ostegunetan arratsaldeko 18:00-19:30 bitartean. Bilera bat egin dugu eta beste bat daukagu datorren astean, maiatzaren 8an, tartean bi hilabetez ez ditugu egin turismoko prozesuko bi saioak egin direlako.

Ondoren batzordeak landu dituen proiektuen berri eman dugu:

AUTOPISTA ELEKTRIKOA

Agintaldia proiektu honen kezkarekin hasi genuen eta berriro kezka handiarekin bukatuko dugu. Agintaldi honetan bigarrenaz proiektua geldiaraztea lortu da, baina hirugarren proiektua lantzen hasi dira berriaz. Aste honetan ingurumeneko txostenari alegazioak egin dizkiogu.

Gipuzkoa eta Nafarroako 438 hautetsik sinatu dute kontrako adierazpena, horietatik 63 alkatek eta 42 kontzeju lehendakarik. Aurrerago proiektuari alegazioak egin beharko zaizkio. Hirugarren saiakera hau gelditzeko ezinbestekoa izango da herritarrek eta udalek aurrekoetan bezala elkarlana egitea.

GAZTE ETA ADINEKOENTZAT ETXEBIZITZAK

Azken Batzarretik bi berri pozgarri ditugu proiektu honen inguruan:

- Eraikuntza lanak apirilaren 8an hasi dira.
- Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 2tik ekainaren 30era bitartean.

Lehen aldiz lortu da herrian arlo publikotik etxebizitza proiektu bat gauzatzea herriko gazteentzat, eta hau herria bizirik mantentzeko ezinbestekoa da, gazteak herritik ez joateko, eskola zabalik jarraitzeko eta orokorrean herria bizirik mantendu nahi badugu.

Egoera honetara iristeko bidea luzea izan da eta orain iritsi da momentua publikoki adierazteko **oztopoak eta injerentziak** izan ditugula Zeraindik bertatik bultzatuta:

- 2018ko apirilean onartu zen Zerain Dezagun Fundazioa eta Udalaren arteko hitzarmena eta handik gutxira hasi ginen oztopo eta injerentzia horiek sumatzen.
- 2018ko maiatzean Ogasunetik bilera bat eskatu ziguten etxebizitzaren proiektuari buruz hitz egiteko.
- 2018ko ekainaren 1ean: Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu eta bozeramaileak, Imanol Lasak (EAJ), deitu zion udaleko Idazkariari etxebizitzaren proiektuari buruz galdezka. Azpimarratzekoa da Zerainen idazkari denetik lehen aldiz deitu diola Aldundiko diputatu batek.
- 2018ko ekainaren amaieran Udal ordezkariak Ogasunera joan ziren eskatutako bilerara, Bittori Zabalorekin (EAJ). Aurretik, 2017ko abenduan, Etxebizitzak Fundaziotik egitea gomendatu zien arren, bilera horretan argumenturik gabe, bere iritzia aldatu zuen.
- 2018ko ekainetik urrira bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak, Bittori Zabalak (EAJ), 3 dei egin zizkion Fiare Banca Eticako arduradunari. Beti proiektuari buruz zalantzak sortuz eta finantziazorik ez emateko gomendatuz. Fiare Banca Eticak eskatu zion gomendio hori justifikatuko zuen dokumenturen bat bidaltzeko, baina inoiz ez zuten halakorik bidali.
- Fiare Banca Eticako batzorde sozialean proiektua aztertu zenean, proiektua ez egitea nahi zuen Ordiziako kide batek dimisioa eman zuen batzordea proiektuaren alde agertu zenean.

- Urrian Fiare Banca Eticak onartu zuen finantziazioa eta esleipen prozesua hasi zen. Abenduan publikatu zen.
- 2019ko urtarrilan, lizitazioko lehen lotera aurkeztu zen Iñatel S.L enpresak atzera egin zuen presioak jasotzearen ondorioz. Aipatzekoa da Xaguen lagunen abokatuak zeresana izan zuela presio horietan.
- 2019ko urtarrilean baita ere, bigarren lotera aurkeztu zirenak jakin arazi ziguten zalantzak sortu zizkietela haiei ere, Adegitik beste batzuen artean.
- 2019ko urte hasieran Eusko Jaurlaritzako Fundazioen Babeslaritzak errekurtsio bat jaso zuen Xaguen lagunen lehendakariaren izenean, Zerain Dezagun Fundazioaren estatutuen eguneraketaren aurka. Azpimarratzekoa da zeraindar batzuk abokatu batzuekin Gasteizera Babeslaritzara joan zirela errekurtsioa jarri baino lehen Babeslaritzaren iritzia jakiteko, eta Babeslaritzan ez zegoela ezer errekurritzeko esan arren, errekurtsioa jarri zutela. Babeslaritzak ez zuen onartu errekurtsioa.
- 2019an jakinarazi ziguten Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko arduradun politikoek (PSE) ere jaso zituztela EAJtik presioak Zeraingo Udalari diru laguntza emateagatik.
- 2019ko apirilaren bukaeran abokatu batek obra baimenaren espedientea eskatu digu.

Hilabete guzti hauetan etengabea izan da proiektuaren inguruan bultzatutako zalantzak, zurrumurruak, kontrakotasunak Zeraindar batzuen partetik. Eta zehazki Xaguen lagunen artean kalte ekonomikoak beraien gain etorriko zirela esanez, hori horrela ez denean. Nahiz eta Herri Batzar batean Zeraindar horiek esan zuten proiektuaren kontra ez zeudela, gauza bat esan eta bestea egin dutela argi dagoela uste dugu.

Guzti honekin ez dute lortu proiektua gelditzea baina bai udal taldea eta udal langileen lan karga handitzea eta epeak luzatzea.

ERAIKUNTZA LANAK

Eraikuntza lanak oso ondo doaz. Laster bukatuko da lehen fasea. Bigarren fasearen hasieran lanak ez dira lur sailean egingo tailerrean baizik. Hori dela eta, uda arte ez da aurrerapenik ikusiko bertan. Baina uda partean 15 egunetan eraikina altxatuko dute eta ondoren barruko lanak hasiko dira. Urte berrirako amaituta egongo da.

IZENA EMATEKO EPEA

Epea zabalik dago eta interesatuta zaudeten herritarrak udalean eskatu dezakezue informazioa. Inguruko gazteen artean denon artean zabaldu dezagun.

ERREKALDEKO SANEAMENDUA

2019ko martxoan bigarren bilera egin dugu proiektuko lurjabeekin Mutiloako Udalean. Bertan lurjabeei baimenak eskatu zitzaizkien lanak egin ahal izateko.

Bilera horretan agertutako galderak eta kezkak erantzuteko martxoan bertan Aldundiko teknikaria hainbat lurjabeekin egon da terrenoan bertan.

Ingeniaritza enpresa batek landu du proiektua 2018ko uztailetik eta bukatzen ari da. Proiektuaren exekuzioa uda ondoren izango da.

Proiektua 360.000 euro ingurukoa izango da.

BASERRI BIDEAK

2019an bi baserri bide daude onartuta:

- Kozmendi bidea (bigarren partea)
- Arrola bidea

Dagoeneko egin dira bilerak herritarrekin eta dena adostuta dago. Maiatzean egingo dira lanak.

Gai honen harira, GFAan diru laguntza eskatu da urtero eta onartutakoan bilerak egin dira lurjabeekin erabakitzeke zer egin onartutako diruarekin. Hori dela eta, batzuetan aldatu egin da diru laguntzan onartutako trazatua, esaterako:

- Zabalegin Lumagorri aurreko zatia konpondu ordez, bidearen hasiera konpondu zen Lumagorrirekin adostuta.
- Koozmendin bidearen bigarren zatia egin zen, hasierakoa egin ordez, baita ere lurjabeekin adostuta.
- Kortatxorako bidean hasieratik hasi eta gaizki zeuden zatiak bakarrik egitea erabaki zen eta Arregira doan adarra bukatzea (asfaltoa botatzea falta zen bakarrik) 23 lurjabeen adostasunarekin egin zen.

Orain artean, egindako trazatu aldaketa horiekin Aldundiak ez du ezer esan. Iaz ordea, Kortatxorako bidean parte duen lurjabe batek salaketa jarri zuen Aldundiko Oreka zuzendaritzan trazatu aldaketa adieraziz Arregiko adarraren inguruan. Ondorioz, Foru Aldundiak salaketa hau kontuan harturik ia **6.000 € gutxiago** eman dizkio Udalari guztion kalterako.

Ondorioz hemendik aurrera lurjabeek udalarekin erabakitakoa hasierako trazatua aldatzen badu, Aldundira bidaliko da lurjabeek sinatuta Aldundiak onartzeko.

MEHATZETAKO LABEAK

Aurreko batzarrean aipatu genuen 2018ko Sustapen Ministerioaren deialdian aurkeztu genuela proposamena eta 2019ko martxoan berri ona jaso genuen.

542.688,16 euro onartu dizkigute 725.325 € ko proiektua egiteko. Mehatzak egoera kaxkarrean daude eta honekin lortuko dugu gure ondarea denbora luzez irautea eta bisitariei etorkizuneko bisitatan aukera berriak eskaini ahal izatea.

3.3 Tokiko Garapena

Ez da bilerarik egon turismoko prozesua martxan egon den bitartean batzordekideak bertan parte hartu dutelako. Maiatzean bilera bat egingo da eta Biolurrekin eta Goierriko Baratzarekin batera, aurten izango dugun azokaren 25. urteurrena antolatzen hasi gara dagoeneko.